

# Alcatel

## One Touch 665 -aren Erabiltzailearen eskuliburua



one touch | 665

Euskaltelek itzulitako eta  
ekoiztutako eskuliburua



# Bizkor hasteko gida

Telefonoa erabiltzeko moduari buruzko informazio gehiago izateko, jo ezazu <http://www.alcatelonetouch.com> webgunera, eta deskargatu erabiltzailearen eskuliburu osoa (ingelesezko bertsioa). Webgune horretan, FAQeko (ohiko galderen foroa) kontsultak ere egin ahal izango dituzu (ingelesezko bertsioa bakarrik).



[www.sar-tick.com](http://www.sar-tick.com)

Telefono mugikor honek Estatuan aplikatu beharreko 0,2 Watt/kilogramoko SAR mugak betetzen ditu. SAREn gehieneko balioak ezagutzeko, ikus erabiltzailearen eskuliburu honetako 22. orrialdea.


Telefonoa gorputzetik gertu daramazunean edo hura erabiltzen duzunean, erabil ezazu osagarri baimendu bat (esaterako, gerrikoan jartzeko zorro bat), edo utz ezazu 1,5 cm-ko tarte telefonoaren eta zure gorputzaren artean, irratimaiztasunarekiko esposizioari buruzko neurriak betetzen dituzula ziurtatzeko. Kontuan izan telefonoak uhin elektromagnetikoak igortzen dituela deirik egiten ez duenean ere.




Musika luzaroan ozen entzunda entzumenari kalte egiteko arriskua dago. Doitu zure mugikorraren bolumena arrisku gabe entzuteko. Erabili beti TCT Mobile Limited entzungailuak.

**ALCATEL**onetouch.

# 1 Zure telefonoa .....



- 1 Ezkerreko funtzio-tekla
- 2 Telefonoa hartzeko/ Deitzeko  
Deien erregistroa  
Dei-simulazioa aktibatzeko  
(luze sakatuta)
- 3 Ahots-postontzia (luze sakatuta)
- 4 Eskuineko funtzio-tekla
- 5 Pizteko/ Itzaltzeko / Esekitzeko tekla
- 6 Bibragailua (luze sakatuta)
- 7 Nabigazio-tekla <sup>[1]</sup>:  
Menura sartzeko/Aukera bat berresteko   
Widget-en barra ezkutuan baldin badago:  
Mezuak ▲  
Telefono-aurkibidea ▼  
Alarma   
Egutegia 
- 8 Kameraren tekla

<sup>[1]</sup> Sare-operadorearen arabera.

## 1.1 Teklak



Nabigazio-tekla

Aukera bat berresteko (teklaren erdian sakatuta)

Musika-erreproduzitzailea aktibatzen (luze sakatuta teklaren erdian)

Widget-en desplazamendu-barra (teklaren eskuinean edo ezkerrean sakatuta)



Esekitzeko tekla

Deia egiteko

Hasierako pantailan:

Deien erregistroa kontsultatzeko tekla (berriro deitzeko tekla) (labur sakatuta).

Dei-simulazioa aktibatzen (luze sakatuta)

MP3a erreproduzitzen ari dela:

Telefonotik bozgorailura aldatzea, eta alderantziz (luze sakatuta)



Telefona pizteko/jitzaltzeko tekla (luze sakatuta)

Esekitzeko

Hasierako pantailara itzultzeko



Ezkerreko funtzio-tekla



Eskuineko funtzio-tekla



Ahots-postontzia kontsultatzeko (luze sakatuta)



Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta: hizkuntzen zerrendara sartzeko

- Luze sakatuta: zero idazteko



Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta: idazteko metodoa aldatzeko
- Luze sakatuta: sinboloen taulara joatea



Hasierako pantailan:

- Labur sakatuta: #
- Luze sakatuta: activar/desactivar el modo de vibración

Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta: — (zuriunea)



Kameraren tekla: sartu **Kameran** (labur sakatuta)

## 1.2 Hasierako pantailako ikonoak <sup>(1)</sup>



**Bateriaren karga-maila**



**Bibragailua modua:** zure telefonoak dar-dar egiten du, baina ez du soinurik egiten.



**Bluetooth-aren egoera** (Aktibatuta).



**Bluetooth-aren egoera** (audio-gailu bati konektatuta).



**Entzungailuak konektatuta.**



**Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta:** zure deiak desbideratu egingo dira.



**Alarmak edo hitzorduak programatuta.**

<sup>(1)</sup> Gidaliburu honetako ikonoak eta irudiak lagungarriak dira.



Estaldura-adierazlea.



Mezu berria ahots-postontzian.



Galdutako deiak.



Irratia piztuta.



AlarmasWAP <sup>(1)</sup>.



Roaming-a.



SIM txartela falta da.



GPRS konexioaren egoera (Aktibatuta).



GPRS konektatzen.



MMSa bidaltzea.



MMSa jasotzen.



**Isilik modua:** zure telefonoak ez du txirrinik edo soinurik ateratzen eta ez du dar-dar egiten, alarmen kasuan izan ezik.



Irakurri gabeko SMSa



Irakurri gabeko MMSa



Hegaldiko modua.

<sup>(1)</sup> Sare-operadorearen arabera.


## 2 Martxan jartzea.....

### 2.1 Erabiltzeko moduan jartzea


#### Atzeko tapa ateratzea/jartzea



#### Bateria ateratzea/jartzea




#### SIM txartela sartzea eta ateratzea



Jarri SIM txartela txipa beherantz duela, eta sartu dagokion tokian. Egiaztatu behar bezala sartuta dagoela. Txartela ateratzeko, estutu eta kanporantz atera.

## **Bateria kargatzea**



Jar ezazu kargagailua telefonoan, eta konektatu kargagailua korronte-hartunera.

- Kargagailuak 20 bat minutu beharko ditu kargatzen hasteko, bateria guztiz agortuta badago.
- Ez behartu telefonoaren hartunea.
- Egiatzatu bateria ongi sartu duzula kargagailua konektatu aurretik.
- Korronte-hartuneak telefonotik gertu egon behar du, errazago iristeko (luzapen elektrikoak ez erabiltzea gomendatzen da).
- Telefonoa lehenengo aldiz erabiltzean, bateria erabat kargatzea aholkatzen dizugu (3 orduz gutxi gorabehera). Behar bezala funtziona dezan, telefonoa (🔋) erabat kargatu behar duzu.
- Bateria- eta energia-kontsumoan aurrezteko, bateria kargatzen denean, deskonektatu kargagailua entxufetik, deskonektatu Bluetooth-a erabiltzen ez duzunean, murriztu hondoko argiaren denbora, etab.



Bateria erabat betetzen denean, animazioa gelditu egiten da.

### **2.2 Telefonoa piztea**

Luze sakatu  tekla, telefonoa piztuta egon arte.

### **2.3 Telefonoa itzaltzea**

Luze sakatu hasierako pantailako  tekla.




# 3 Deiak .....

## 3.1 Deiak egitea

Markatu telefono-zenbakia eta sakatu  tekla dei bat egiteko. Akatsen bat eginez gero, erabili eskuineko funtzio-tekla zifrak ezabatzeko.

Esekitzeko, sakatu  tekla

### **Larrialdiko deia egitea**

Zure telefonoa sareko estaldura-eremuan badago, markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu  larrialdi-dei bat egiteko, baita SIM txartelik gabe; ez duzu PIN kodea sartu beharko.

## 3.2 Ahots-postontzira deitzea <sup>(1)</sup>

Ahots-postontzira sartzeko, sakatu luze |  tekla.

## 3.3 Deiak jasotzea

Deia jasotzean, sakatu  tekla deia hartzeko, eta, amaitzen duzunean, sakatu  tekla deia amaitzeko.

## 3.4 Telefonoz hitz egiten ari zarenean erabil ditzakezun funtzioak

Dei batean, zure agenda, egutegia, mezu laburrak eta abar erabil ditzakezu, solaskidearekiko komunikazioa eten gabe.

<sup>(1)</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

## 4 Telefono-aurkibidea .....

### 4.1 Zure kontaktuak kontsultatzea

Hasierako pantailatik **agendara** sartzeko, sakatu  tekla eta aukeratu menuko  ikonoa.

### 4.2 Kontaktua eranstea

Hautatu kontaktua zein direktoriotan erantsi nahi duzun, sakatu **“Aukerak”** funtzio-tekla eta hautatu **“Kontaktua”**.

## 5 Mezuak .....

### 5.1 Mezu bat sortzea

Menu nagusitik, hautatu **“Mezuak”** testu/multimedia mezu bat sortzeko. Mezu bat idatz dezakezu, **“Ezarpenak”** atalean aurrez definitutako mezua aldatu dezakezu edo mezua pertsonaliza dezakezu, irudiak, argazkiak, soinua, izenburua eta abar erantsita (MMS bat aldatzean bakarrik). Idazten ari zaren bitartean, hautatu **“Aukerak”** mezuen aukera guztietara sartzeko. Maiz bidaltzen duzun mezua **Zirriborroa** gisa edo **Ereduak** gisa gorde ahal izango duzu (MMSak bakarrik).



Karaktere bereziek (azentuak) SMSaren tamaina handitzen dutenez, baliteke jasotzaileari zenbait SMS bidaltzea.

## 6 Posta elektronikoa .....

Posta elektronikoko zerbitzu ezagun batzuetarako (Gmail, Windows Live, Yahoo, AOL...) konfigurazio lehenetsia du zure gailuak. Horrez gain, POP3 edo IMAP 4 posta elektronikoko kontuak ere konfiguratu ditzakezu.

## 7 Opera Mini .....

Opera Minik Interneteko esperientzia osatua ematen dizu (zure lagunekin harremanetan zaude, informazioa eskuratzen duzu, bankuko eragiketak egin ditzakezu on line), eta, konprimitutako web-orriei esker, denbora aurrezteko diseinatuta dago.

## 8 Facebook .....

Pertsonak beren lagunekin, lankideekin, ikaskideekin edo inguruan bizi direnekin konektatzen ditu Facebook sare sozialak. Erabiltzaileei elkarreraginerako aukera ematen dieten ezaugarri batzuk ematen ditu, hala nola Muro, Pokes, etab.

Kontu bat irekitzeko, bisitatu <http://www.facebook.com/>.

## 9 mTweet .....

Twitter sare soziala eta mikroblog-zerbitzua da; mundu osoan harrera beroa izan du eta oso ezaguna da. Mugikorren erabiltzaileek berriak eta ideiak argitara ditzakete mezuen edo “post”-en bidez. “Post”-ak egilearen profileko orrian agertzen dira, eta jarraitzaileei bidaltzen zaizkie.

Kontu bat irekitzeko, ikus: <http://twitter.com/>.

## 10 Kameraren tekla .....

Zure mugikorrak kamera du, eta harekin argazkiak atera eta bideoak graba ditzakezu, eta haiekin hainbat gauza egin:

- “Fitxategiak\Nire sorkuntzak” karpetan gorde.
- Multimedia-mezu batean (MMS) bidali beste mugikor batera edo helbide elektronikoa batera.
- Zuzenean posta elektronikoz edo Bluetooth bidez bidali.
- Pantaila nagusia pertsonalizatu.
- Direktorioko kontaktu bati sarrerako irudi gisa esleitu.

## 11 Multimedia .....

### 11.1 Musika

Funtzio honetara sar zaitezke hasierako menuetik “Musika” hautatuta. Zure mugikorreko eta zure memoria-txarteleko musika kudeatzeko malgutasun osoa izango duzu.

## 11.2 Bideoa

“Nire bideoak” albumak grabatutako, jasotako edo deskargatutako bideoak ditu.

## 11.3 Irratia

Zure telefonoak RDS funtzioa duen irratia<sup>(1)</sup> du. Zure telefonoa irrati arrunt gisa erabil dezakezu eta kanalak gorde. Pantailan irratsaioari buruzko informazioa ikus daiteke Visual Radio zerbitzua eskaintzen duten kanalak sintonizatuz gero. Beste aplikazio batzuk exekutatzan dituzun bitartean, irratia entzun dezakezu.


# 12 Nire lagunak .....



Erabili webguneetako edukiak zure lagunekin harremanetan egoteko (Friendster, Hi5...).

# 13 Ezarpenak .....



Hasierako pantailatik, aukeratu menuko  ikonoa, eta, ondoren, aukeratu nahi duzun funtzioa telefonoa pertsonalizatzeko: **Telefono-  
ezarpenak, Dei-  
ezarpenak, Segurtasuna, Sarea, Konexioak**

<sup>(1)</sup> Irratiaren kalitatea zauden eremuan kateak duen estalduraren arabera da.

## 14 Deien erregistroa .....

Deien memoria ikus dezakezu hasiera pantailan  sakatuta; irteerako deiak, dei galduak eta erantzundako deiak azalduko dira.

## 15 Tresnak .....


### 15.1 Egutegia

Menu nagusitik menu honetara sartzean, hilen arabera egutegi bat aurkituko duzu zure bilera eta hitzordu garrantzitsuak jasotzeko. Gertaerak dituzten egunak kolorez agertuko dira.


### 15.2 Alarma

Zure telefono mugikorak iratzargailua du, eta berriz jotzeko funtzioa dauka.

### 15.3 Dei faltsua

Funtzio honek aukera ematen du zure telefonotik dei bat egiteko, programatutako orduan, kontaktu baten zenbakia, izena, dei-tonua edo argazkia dela simulatuz. Hala, egoera deseroso batean dei-simulazioaren funtzioa aktiba dezakezu norbaitek deitzen dizula eta hartu egin behar duzula simulatzeko. Deia ez onartzeko, sakatu  tekla.

**Ezarpenak** ● Konfigurazio lehenetsia: deiaren izena/zenbakia, deiaren ordua, dei-tonua, irudia (kontaktuaren argazkia).

**Aktibatzea** ● Dei faltsu bat aktibatzeko aukera ematen du **Tresnak|Dei faltsua|Aktibatu** hautatuta edo segundo batzuek pantaila nagusiko  tekla sakatuta. Hala, aurrez zehaztutako orduan egingo da deia.

## 15.4 Oharrak

Testu-formatua edo ahots-formatua duen ohar bat sor dezakezu menu nagusiko “Oharrak” aukeran.

## 15.5 Kalkulagailua

Idatzi zenbaki bat, hautatu egin nahi duzun operazioa eta hautatu beste zenbaki bat. Ondoren, sakatu “=” emaitza bistaratzeko.

## 15.6 Fitxategien kudeatzailea

Telefonoan edo memoria-txartelean Fitxategiak karpetan jasotako audio-eta bideo-fitxategi guztietara sar zaitezke. Aukera horren bidez, hainbat aukeratan sar zaitezke: **Nire audio fitxategiak**, **Nire irudiak**, **Nire bideoak**, **Nire sorkuntzak**, **Beste fitxategi batzuk**, **Telefonoa**, **Memoria-txartela**, **Memoriaren egoera**.

**Memoria-txartela sartzea:**



MicroSD txartelaren euskarria irekitzeko, lerratu geziaren norabidean eta altza ezazu. Sartu microSD txartela urre-koloreko kontaktuak behera begira dituela. Azkenik, jaitsi berriro txartelaren euskarria, eta lerratu kontrako norabidean ixteko.

## 15.7 Munduko erlojua

Munduko erlojuak hainbat hiritako ordua eta ordu-zona erakusten du.

## 15.8 Bihurgailua

Unitate-aldatzailea eta moneta-aldatzailea.

## 15.9 Kronometroa

Kronometroa aplikazio arrunta da, denbora neurtzeko erabiltzen dena; hainbat emaitza gordetzeko eta neurketak eten eta berrabiarazteko aukera ematen du.

# 16 Java .....



Zure telefonoak aplikazioak eta java jokoak<sup>(2)</sup> izan ditzake(2). Gainera, beste aplikazio eta joko batzuk ere deskarga ditzakezu zure telefonoan.

### 16.1 Java aplikazioak

Hautatu "Java aplikazioak" aplikazioak martxan jartzeko.

### 16.2 Java ezarpenak

Menu honen bidez, Java doikuntzak erabili ahal izango duzu, zeinetan Audioa, Hondoko argia, Bibrazioa eta Tamaina ezarri ahalko baitituzu.

### 16.3 Java sarea

Menu honekin, Java sarea aukeratu daiteke.

### 16.4 Ziurtagiri fidagarria

Ikus ezazu telefonoak hartzen dituen egiazkotasun-ziurtagiriei buruzko informazio xehea.

<sup>(2)</sup>Sare-operadorearen arabera.



Alcatel-Lucent-en marka erregistratua da  
ALCATEL, eta TCT Mobile Limited-en lizentziarekin  
erabiltzen da.

Eskubide guztiak, erreserbatuta © Copyright 2011  
TCT Mobile Limited.

Aldez aurretik iragarri gabe materialak edo  
xehetasun teknikoak aldatzeko eskubidea du TCT  
Mobile Limited-ek.

# 17 Aplikazioak .....



## 17.1 Wap

Wap aukeretara sartzeko: **Hasierako orria, Laster-markak, Ikusitako azken orrialdeak, Lineaz kanpoko orriak, Joan URLra, Zerbitzuaren sarrerako ontzia, Ezarpenak.**

## 17.2 Bluetooth®

Acceda a esta característica pulsando  para entrar en el menú principal, entonces seleccione **“Aplikazioak\ Bluetooth”**.

## 17.3 Tokiko jokoan

Zure Alcatel telefonoak joko batzuk izan ditzake.

## 17.4 Berriak

Gailu honek denbora aurrezten lagunduko dizu, eta webgune bateko eguneraketak erraz eskainiko dizkizu. Kanal batean izena eman ondoren, zure mugikorreko RSS eduki guztia erregistratzeko eta kudeatzeko aukera emango dizu, edozein unetan eta edozein lekutan.

## 17.5 Eguraldia

Gogokoen dituzun hirietako eguraldiaren hiru iragarpen kontsultatzeko funtzio bat du telefonoak.

## 17.6 Zerbitzuak

Contacte con el operador de la red para consultar los servicios disponibles.


## 18 Profilak .....



Menu honen bidez, hainbat hitzordu eta ingurutarako doinuak pertsonaliza ditzakezu.

## 19 Testua idazteko modua ....

Mezuak idazteko bi idazketa-metodo daude.

- Arrunta: Modu honekin, teklei dagozkien letrak edo karaktere-segidak hautatu behar dituzu testua idazteko.
- Testua modu prediktiboan sartzea, eZi moduan: Modu honekin azkarrago idatz daiteke testua.
-  + tekla, editatzeko moduan  
Labur sakatuta: Hizkuntzen zerrendara joateko (luze sakatuta): zero idazten du.

# Erabiltzeko oharrak .....

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/jedo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule izango.

## • **SEGURTASUNA IBILGAILUAN**

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, telefono mugikorra gidatzean erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, esku libreko kit eramangarria...) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa ez erabiltzea gomendatzen zaio gidariari.

Gidatzen ari zaren bitartean, ez erabili telefonoa edo aurikularrak musika edo irratia entzuteko. Aurikularrak erabiltzea arriskutsua izan daiteke, eta baliteke zenbait eremutan debekatuta egotea. Telefonoak erradiazioak igortzen ditu piztuta dagoenean, eta horrek ibilgailuko ekipo elektronikoetan interferentziak sor ditzake, adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airbagean, etab. Horregatik, neurri hauek hartu behar dituzu:

- ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan.
- kontsultatu ibilgailuaren fabrikatzaileari edo kontzesionarioari, ibilgailu barruko tresnak telefono mugikorraren irrati-maiztasunaren aurka behar bezala babesturik dauden.

## • **ERABILTZEKO KONDIZIOAK**

Noizean behin telefonoa itzaltzea aholkatzen dizugu, funtzionamendua optimizatzeke. Itzali telefonoa hegazkinean.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Telefono hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irrati-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Arauk errespetatu erregailtegiengan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan. Piztuta dagoenean, ez jarri telefonoa inoiz tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, intsulina-ponpa, etab.) 15 cm-ra baino gutxiagora. Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarrarian, baizik beste aldekoan.

Entzumen-arazorik ez izateko, hartu deia telefonoa belarrira hurbildu aurretik. Esku libreko funtzioa erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik, bolumen anplifikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako.

Ez utzi haurrei telefonoa edo telefonoaren osagarriak erabiltzen edo horiekin jolasten, zu inguruan ez bazaude.

Karkasa desmuntagarria ordezkatzean, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak eduki ditzakeela produktuak.

Kontu handiz ibili beti telefonoarekin, eta gorde ezazu hautsik gabeko leku garbian.

Ez utzi telefonoa ingurune kaltegarrietan (hezetasuna edo kondentsazioa, euria, likidoak sartzea, hautsa, itsas brisa, etab.). Fabrikatzaileak -10 °C eta +55 °C bitarteko tenperatura gomendatzen du.

55°C-tik gorako temperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da eta ez dakar arrisku berezirik.

Telefono-sare batzuetan, larrialdi-zenbaki batzuetara ezin da deitu. Ez izan erabateko konfiantzarik zure telefonoan larrialdi-deiak egiteko.

Ez saiatu telefonoa irekitzen, desmuntatzen edo konpontzen.

Ez dadila telefonoa erori, ez jaurti eta ez saiatu tolesten.

Ez pintatu telefonoa.

Zure telefono-modeloarekin bateragarriak diren bateriak, kargagailuak eta osagarriak bakarrik erabili. Hala egiten ez bada, TCT Mobile Limited-ek eta haren filialek ez dituzte haien gain hartuko gerta daitezkeen kalteak.

Ez bota telefonoa udalaren zabor-ontzietara. Ongi irakurri produktu elektronikoak zakarretara nola bota behar diren zehazten duen tokiko araudia.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea. Pertsona batzuek epilepsi krisiak jasan ditzakete edo kordea gal dezakete argi distiratsuen ondorioz (adibidez, bideojokoetakoak). Epilepsi krisi horiek edo kordearen galera inoiz jasan ez duenak ere izan dezake. Krisiren bat jasan baduzu edo kordea galdu baduzu, edo zure familiar horrelako zerbait gertatu izan bada, galdetu medikuari telefonoan bideojoko horiek erabili aurretik edo telefonoko argi distiratsua aktibatu aurretik.

Gurasoek zaindu behar dituzte haurrak, bideojoko horiek edo argi distiratsua dituzten beste funtzio batzuk erabiltzen dituztenean. Norbaitek sintoma hauetako bat edukiz gero, telefonoa erabiltzeari utzi eta medikuari galdetu behar dio: konbultsioak, begietako edo muskuluetako uzkurdurak, kordearen galera, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Sintoma horiek gertatzeko aukerak mugatzeko, hartu neurri hauek:

- nekatuta bazaude edo lo egiteko beharra baduzu, ez jolastu telefono mugikorrekin eta ez erabili argi distiratsua duten funtzioak,
- orduro gutxienez 15 minutuko atsedena hartu,
- jolastu beti gelako argiak piztuta daudela,
- jolasteko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.
- jolasten ari zaren bitartean, eskuak, eskumuturrak edo besoak nekatu egiten bazaizkizu edo minduta sentitzen badituzu, hartu atsedena hainbat orduz berriro jokatzeko hasi aurretik,
- jokatzeko ari zaren bitartean edo jokatu ondoren, eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta segitzen badute, ez jolastu gehiago eta joan medikuarenera.

Zure telefonoko jokoak erabiltzean, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste atalen bateko giharretako mina eduki dezakezu. Segitu jarraibideei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo muskuluetako edo hezurretako beste lesiorik ez izateko:

## • BIZITZA PRIBATUA ERRESPETATzea

Telefono mugikorrekin argazkiak ateratzeari eta soinuak grabatzeari buruz zure herrialdean indarrean dauden lege eta arauak errespetatu egin behar dituzu. Arau eta lege horien arabera, erabat debekaturik dago beste pertsona batzuen edo haien ezaugarri pertsonalen argazkiak egitea eta/edo haien ahotsak grabatzea eta argazki edo grabazio horiek erreproduzitzea edo banatzea, bizitza pribatua urratzen dela ulertzen baita. Erabiltzailearen ardura da dagokion baimena duela ziurtatzea, beharrezkoa bada, elkarrizketa pribatuak edo konfidentzialak grabatzeko edo beste pertsona bati argazkiak ateratzeko; zure mugikorraren fabrikatzaileak, banatzaileak edo saltzaileak (eta operadoreak) ez dute izango telefonoa behar ez bezala erabiltzeak eragindako ondorioen ardurarik.

## • BATERIA

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela. Bateria erabiltzean, ohar hauek eduki behar dira kontuan:

- Ez ireki bateria (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago).
- Ez egin zulorik, ez desmuntatu, ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez bota sutara, ezta zaborretara ere, ez eduki 60°C-tik gorako tenperaturetan.

Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu ingurumena babesteari buruz indarrean dauden legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako. Ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo TCT Mobile Limited-ek eta/edo haren filialek aholkatu gabekorik.



Zure telefonoak, bateriak edo osagarriak ikur hau badute, gune hauetako batera eraman behar dituzu gehiago erabil ezin ditzakezunean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzi bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatzeko zentroetara.
- Saltokietako edukiontzietara.

Produktuak birziklatu egin behar dira, ingurumenean substantziarik ez zabaltzeko, eta haren osagaiak, berrerabili.

### Europako Batasuneko herrialdeetan:

doan da bilketa-puntuetara sartzea, eta ikur hori duten produktu guztiak toki horietan utzi behar dira.

### Europako Batasuneko kide ez diren herrialdeetan:

herrialde edo eskualde horretan biltzeko eta birziklatzeko aukera badago, produktu horiek ez dira bota behar zakarrontzi arruntetara. Bilketa-puntuetara eraman behar dira, birziklatzera.

ERNE! BESTE MODELO BATEN BATERIA JARRIZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, SEGI EMANDAKO JARRAIBIDEEI.

## • KARGAGAILUAK

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0 °C eta 40 °C bitartean funtzionatzen dute.

Zure telefonoaren kargagailuak informazio-tratamendurako eta bulegoko segurtasun-  
arauak betetzen ditu, eta erabilera horretarako bakarrik diseinatuta dago.

## • UHIN ELEKTROMAGNETIKOAK

Telefono mugikorren modelo guztiek nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) Direktibarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea –batez ere telefono mugikorren erabiltzaileena– eskakizun edo direktiba horien funtsezko betebeharra da.

### TELEFONO MUGIKOR HONEK UHIN ELEKTROMAGNETIKOEKIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK BETETZEN DITU

Zure telefono mugikorrek irrati-uhinak (uhin elektromagnetikoen irrati-maiztasuna) igorri eta jasotzen ditu, eta nazioarteko araudietan gomendatzen diren uhin elektromagnetikoeziko esposizioari buruzko mugak errespetatzeko diseinatu da. Arau horiek zientzia-batzorde pribatu batek garatu ditu (ICNIRP, Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak), eta erabiltzaile guztien segurtasuna bermatzeko segurtasun-tarte garrantzitsu bat barne hartzen dute, erabiltzaile horien adina edo osasun-egoera edozein direla ere.

Absortzio espezifikoko tasa (SAR, specific absorption rate) deritzon neurri-unitatea erabiltzen dute uhin elektromagnetikoeziko esposizioari buruzko arauak, zeinak telefono mugikorrek igortzen duten irrati-maiztasuna neurtzen baitu. Telefono mugikorretarako, 2,0 watt/kilogramo muga dago. SAR probak potentzia-mailarik altuena igortzen duten telefono mugikorretan egin dira, maiztasun-banda guztietan eta funtzionamendu estandarreko posizioetan. Hauek dira SAR balio altuenak, ICNIRP batzordeak modelo honetarako ezarritako arauen arabera:

<b>Modelo honetzako eta probetan izan ziren kondizioetarako gehieneko SAR balioa.</b>		
<b>Burutik gertu erabiltzeko SAR balioa</b>	<b>GSM900+Bluetooth</b>	<b>0,93 watt/kg</b>
<b>Gorputzerako SAR balioa</b>	<b>GSM900+Bluetooth</b>	<b>0,9 watt/kg</b>

Telefono honen benetako SAR balioak, erabiltzen den bitartean, adierazitako balio horiek baino baxuagoak dira oro har. Izan ere, eraginkortasun-sistema betetzearren eta sareko interferentziak murriztearren, telefonoaren potentzia operatiboa automatikoki murrizten da ez denean potentzia osoa behar deiak egiteko. Zenbat eta txikiagoa izan telefonoaren potentzia, txikiagoa izango da haren d0 balioa. Gorputzeko SAR probak egiteko, 1,5 cm-ko tarte utzi da gorputzaren eta telefonoaren artean. Telefonoa erabiltzen denean irrati-maiztasunarekiko esposizioari buruzko arauak betetzeko, gutxienez tarte hori utzi beharko litzateke telefonoaren eta gorputzaren artean. Ez baduzu osagarri baimendu bat erabiltzen, ziurtatu produktuak ez duela metalik eta telefonoa gorputzetik tarte horretara geratzen dela.

Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi du informazio zientifiko horrek ez duela ziurtatzen ez denik beharrezkoa neurri bereziak hartzea telefono mugikorrek erabiltzeko garaian. Esposizioa murriztu nahi baduzu, mugikorraren erabilera murriztea gomendatzen da, edo, bestela, esku libreko aukera erabiltzea, telefonoa gorputzetik eta burutik urruti edukitzeko.

Informazio gehiago izateko, ikus [www.alcatelonetouch.com](http://www.alcatelonetouch.com). orria.

Hurrengo orri honetan, eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruzko informazioa duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.

Zure telefonoak barneko antena bat du. Komunikazioetan funtzionamendu-kalitaterik onena izateko, ez ukitu edo hondatu.

Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, belarriaren ondoan erabiltzeaz gain, beste posizio batzuetan ere erabil daiteke. Entzungailuekin edo USB datuen kablearekin erabiltzean, gailuak dagokion norabidean egon behar du. Beste osagarriren bat erabili behar baduzu, ziurtatu ez duela inolako metalik, eta kokatu telefonoa gorputzetik 1,5 cm-ra gutxienez.



## • LICENCES

Obigo®



Obigo AB-ren marka erregistratua da.  
MicroSD-ren logotipoa marka komertziala da.



Bluetooth hitzaren marka eta logotipoak Bluetooth SIG, Inc. enpresarenak dira eta TCT Mobile Limited-ek eta horren filialek marka horiek lizentziapean erabiltzen ditu. Gainerako marka eta izen komertzial guztiak dagozkien jabeenak dira.

### **one touch 665 Bluetooth QD ID B016876**



Zi corporation-en etajedo haren bazkideen marka komertzialak dira eZiText® eta Zi®.



Java® eta Java®-n oinarritutako marka komertzial eta logotipo guztiak Sun Microsystems, Inc.-en marka komertzialak edo erregistratuak dira, eta AEBetan eta beste herrialde batzuetan dituzte egoitzak.

**Opera Mini™** Opera Mini™ Opera Mini-ren marka erregistratua da.



Facebook, Inc.-ren marka komertzialak dira Facebook eta f logotipoa ,eta lizentziapean erabiltzen dira.

# Informazio orokorra .....

- **Interneteko helbidea:** [www.alcatelonetouch.com](http://www.alcatelonetouch.com)
- **Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zenbakia:** ikus "TCT Mobile Services" liburuxka edo Interneteko gure gunea.

Interneteko gure gunean, on line kontsultatu ahal izango duzu ohiko galderen foroa (FAQ), edo zuzenean gurekin harremanetan jarri ahal izango duzu posta elektronikoz galderak egiteko. Erabiltzailearen eskuliburu honen ingeleseko edo beste hizkuntza batzuetako bertsioak Interneteko gure helbidean deskarga ditzakezu: [www.alcatelonetouch.com](http://www.alcatelonetouch.com).

Zure telefonoa telefono-deiak egin eta jasotzeko diseinatutako gailua da. GSM sareetan funtzionatzen du, 900 eta 1800 MHz bandetan.

## CE | 588

Honen bidez, TCT Mobile Limited-ek adierazten du Alcatel one touch 665 telefono mugikorrek 1999/05/EE Direktibako oinarritzko baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak betetzen dituztela.

### Lapurretaren aurkako babesa <sup>[1]</sup>

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Lehen aldiz erabiltzen duzunean, komeni da zenbaki hori idaztea (... .. teklak sakatuta) eta leku seguruan gordetzea; izan ere, Poliziak edo operadoreak eska diezazuke telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.

### Erantzukizunik eza

Litekeena da desberdintasunak egotea gidaliburu honen eta telefonoaren benetako funtzionamenduaren artean, telefonoaren softwarearen bertsioaren arabera edo operadore bakoitzaren zerbitzu espezifikoen arabera.

Halako desberdintasunik izanez gero, TCT Mobile-k ez ditu bere gain hartzen, ez eta desberdintasun horiek eragin ditzaketan ondorioak ere; erantzukizun hori operadorearena bakarrik izango da.

<sup>[1]</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

# Telefonoaren bermea .....

Zure telefonoa bermatuta dago bi (2) urterako<sup>(1)</sup>, jatorrizko fakturan ageri den erosketa-datatik zenbatzen hasita, erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz: izena, modeloa, Imei-a, data eta saltzailea.

Erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin badu telefonoak, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, telefonoa eraman.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, telefonoa (edo haren piezaren bat) konpondu egingo da aldatu egingo zaizu, zer komeni den. Hiru (3) hilabeteko bermea dute konpondutako telefonoek eta haien pieza osagarriek akats horren aurka. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin daiteke konponketa edo telefono-aldaketa.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen telefonoak eta/edo pieza osagarriek arrazoiz hauengatik dituzten akatsak:

- 1) Telefonoa erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilera- edo instalazio aginduak edo segurtasun-arauak eta teknikoak ez betetzeagatik.

<sup>(1)</sup> Erabileraren eta sarearen konfigurazioaren araberakoa izango da telefono mugikorraren bateriaren iraupena hitz egiteko denborari, jarduerarik gabeko denborari eta bizitza erabilgarri osoari dagokienez. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote telefonoa erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango du errendimendurik onena zure telefonoak.

- 2) TCT Mobile Limited-ek emandakoa edo gomendatutakoa ez den ekipo batera konektatzeagatik.
- 3) Konponketak edo aldaketak TCT Mobile Limited-ek edo haren filialek edo baimendutako mantentze-zentroak baimendu gabeko herritar partikularrek egin badituzte.
- 4) Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxiboak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goi-tentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarregatik.

Ez dugu telefonoa konponduko etiketak edo serie-zenbakiak (IMEI) kenduta badaude.

Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 Legearen arabera dituen eskubideei.

Inondik ere ez dira izango TCT Mobile Limited edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioen erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egotzen ez badigu.

Herralde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme inplizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea.

Zure telefonoaren legezko bermearen aplikazioari buruzko erreklamazioen bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraiki, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (902 113 119) edo helbide honetara idatziz:

TCT Mobile Europe SAS  
Immeuble Le Capitole  
Parc des Fontaines  
55, avenue des Champs Pierreux  
92000 Nanterre  
Frantzia

# Arazoak eta irtenbideak .....

Laguntza teknikoko zerbitzuarekin harremanetan jarri aurretik, gomendio hauei begiratzea gomendatzen dizugu:

- Telefonoak behar bezala funtziona dezan, telefonoa noizean behin itzaltzea gomendatzen dizugu.
- Bateria optimizatzeke, erabat kargatzea gomendatzen dizugu (🔋).
- Telefonoak hobeto funtziona dezan, telefonoaren memorian datu gehiegi ez gordetzea gomendatzen dizugu.

Gainera, puntu hauek egiaztatzea komeni da:

## Telefono mugikorra ez da pizten

- Sakatu 🔌 tekla pantaila piztu arte
- Egiaztatu bateriaren karga
- Egiaztatu bateriaren kontaktuak, atera eta sartu berriz bateria, eta piztu berriz telefonoa

## Telefonoa desaktibatuta geratu da duela zenbait minutu

- Sakatu 🔌 tekla.
- Kendu bateria, eta gero, sartu berriz eta piztu telefonoa

## Pantaila ez da argi ikusten

- Garbitu pantaila
- Erabili telefono mugikorra gomendatutako erabilera-kondizioetan

## Mugikorra bakarrik itzaltzen da

- Egiaztatu telefonoa erabiltzen ez duzunean teklatura blokeatuta dagoela
- Egiaztatu bateriaren karga

## Mugikorrek autonomia oso laburra du

- Egiaztatu telefonoari erabat kargatzen utzi diozula (3 ordu gutxienez)
- Karga partzial baten ondoren, baliteke karga-maila behar bezala ez adieraztea. Kargagailua deskonektatu eta gero, itxaron 20 minutu karga-maila zehatza jakiteko.

## Mugikorra ez da behar bezala kargatzen

- Begiratu ea bateria erabat agortuta dagoen. Baldin eta agortuta badago, 20 minutu inguru beharko ditu bateria-kargaren adierazlea pantailan agertzeko.
- Egiaztatu kondizio normaletan kargatzen dela (0 °C + 40 °C bitartean)
- Egiaztatu nola sartzen den bateria: bateria kargagailua konektatu baino lehen sartu behar da
- Ziurtatu Alcatel markako bateria eta kargagailua erabiltzen ari zarela
- Atzerrian, begiratu korrante-hartuneen bateragarritasuna


## Telefono mugikorra ez dago sare batera konektatuta

- Begiratu telefono mugikorrak beste sareren bat aurkitzen duen beste toki batean
- Egiaztatu sarearen estaldura operadorearekin
- Egiaztatu SIM txartelaren baliozkotasuna operadorearekin
- Saiatu eskuz hautatzen sare erabilgarria(k)
- Saiatu berriz, gero, sareak gainkarga baldin badu

## SIM txartelaren errorea

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Galdetu operadoreari zure SIM txartela bateragarria den 3 V edo 1,8 V-ekin, lehengo 5 V-eko SIM txartelak ezin baitaitezke erabili.
- Ikusi SIM txartelaren txipa hondatuta edo marratuta dagoen

## Ezin da deirik egin

- Egiaztatu markatu nahi duzun zenbakia markatu duzula eta sakatu  tekla.
- Nazioarteko deientzat, egiaztatu herrialdeko/eremuko kodeak
- Egiaztatu telefonoa sare batera konektatuta dagoela, eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez dituzula irteerako deiak debekatu

## **Ezin da deirik jaso**

- Egiaztatu telefonoa piztuta eta sare batera konektatuta dagoela (eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela)
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez dituzula sarrerako deiak desbideratu
- Egiaztatu ez dituzula dei jakin batzuk debekatu

## **Solaskidearen izena ez da azaltzen deia jasotzean**

- Egiaztatu operadorearen zerbitzu horretara harpidetuta zaudela
- Solaskideak ez du bere zenbakia transmititzen

## **Deien audio-kalitatea ez da onena**

- Dei bat egitean, bolumena  teklaren bidez doi dezakezu.
- Egiaztatu sarearen potentzia 

## **Ezin ditut eskuliburuan azaltzen diren funtzioak erabili**

- Egiaztatu badagokizula zerbitzu hori operadoreari ordaintzen diozunaren arabera
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela Alcatelen osagarriren bat behar

## **Ezin dut agendako zenbakirik markatu**

- Egiaztatu erregistroaren zenbakia ongi gorde duzula
- Egiaztatu, atzerrira deitzen baduzu, herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula

## **Ezin dut kontakturik erantsi hautatutako direktorioan**

- Egiaztatu SIM txartelaren agenda ez dagoela beteta, kendu fitxak edo gorde fitxak telefonoaren agendetan (profesionala, pertsonala).

## **Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian**

- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

## **Ezin naiz ahots-postontzira sartu**

- Egiaztatu zure operadorearen ahots-postontziaren zenbakia “Mi número” atalean gordeta dagoela
- Saiatu berriz gero, sarea okupatuta badago

## **Ezin dut mezurik bidali, ez jaso**

- Egiaztatu telefonoak memorian leku librea duela; beteta egon daiteke
- Egiaztatu operadorearekin zerbitzu hau baduzun edo ez, eta egiaztatu MMS parametroak
- Egiaztatu operadorearekin SMS zentroaren edo MMS profilen kopurua
- Saiatu berriz gero; SMS zentroa beteta egon liteke

## **ikonoa hasierako pantailan agertzen da**

- Mezu gehiegi gorde dituzu SIM txartelaren memorian: kendu zenbait edo gorde itzazu telefonoaren memorian

## **Zerbitzurik gabe ageri da**

- Sarearen estaldura-eremutik kanpo zaude

## **Okerreko 3 PIN kode sartu ditut**

- Jarri harremanetan operadorearekin desblokeatzeko PUK kodea lortzeko

## **Ezin ditut fitxategi berriak deskargatu**

- Egiaztatu lekua libre duzula
- Ezabatu zenbait fitxategi
- Egiaztatu zure operadorearekin duzun harpidetzaren egoera.

## **Telefono mugikorra blokeatuta dago eta ez da pizten**

- Begiratu bateria kaltetuta edo erabat agortuta dagoen.
- Kendu bateria eta SIM txartela, eta, ondoren, sartu berriro. Piztu berriro gailua, oraindik funtzionatzen ez badu
- Luze sakatu # tekla, eta, aldi berean, sakatu pizteko/jitzaltzeko tekla segundo batzuek, telefonoa berrabiarazteko.



Erabiltzailearen telefonoko datu guztiak –kontaktuak, argazkiak, mezuak, artxiboak eta deskargatutako aplikazioak (Java jokoak, adibidez)– galdu egingo dira, behin betiko.



## Nola lortu bateriak gehiago irautea

- Egiaztatu telefonoari erabat kargatzen utzi diozula (3 ordu gutxienez)
- Karga partzial baten ondoren, baliteke karga-maila behar bezala ez adieraztea. Kargagailua deskonektatu eta gero, itxaron 20 minutu karga-maila zehatza jakiteko.
- Piztu hondoko argia behar duzunean.
- Ahalik eta gehiena handitu posta elektronikoa automatikoki begiratzeko tartea.
- Behar duzunean, eskuz eguneratu berriak eta eguraldiari buruzko informazioa, edo handitu automatikoki begiratzeko tartea.
- Irten Java bigarren planoan martxan izaten duten aplikazioetatik, luzaroan erabili ez behar badituzu.
- Desaktibatu Bluetooth-a, erabili behar ez baduzu.

## One Touch Upgrade

One Touch Upgrade erabilia, zure ordenagailutik egunera ditzakezu zure telefonoko programak.

Deskarga ezazu One Touch Upgrade tresna ALCATELen webgunean ([www.alcatelonetouch.com](http://www.alcatelonetouch.com)), eta instala ezazu ordenagailuan. Abiaraz ezazu tresna, eta eguneratu zure telefonoa, argibideak urratsez urrats jarraituz (kontsulta ezazu tresnarekin batera datorren erabiltzailearen eskuliburua). Hala, zure telefonoak programarik modemoenak izango ditu.



Informazio pertsonal guztiak behin betiko galduko da eguneratze-prozesuaren ondoren. Gomentatzen dizugu PC Suite erabiliz zure datu pertsonalen segurtasun-kopia bat egin dezazun.



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen  
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de  
Gestión 2008